

Euskarazko ikasmaterialgintza eta eskuliburugintza sustatzeko 2018ko deialdia

1. Deialdiaren xedea eta modalitateak

Deialdi honen helburu nagusia da UPV/EHUko irakasleen euskarazko irakaskuntzarako materialen ekoizpena sustatzea eta ikasmaterial horien hizkuntza-zuzentasuna eta -egokitasuna bermatzea. Amaituriko materialak Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren webguneko UPV/EHUko ikasmaterialen sare-argitalpenak atalean plazaratuko dira (webgune honetan: <https://ikasmaterialak.ehu.eus/>).

Argitaratzeko baldintzak betetzen dituzten materialak (eskuliburuak) Argitalpen Zerbitzuak argitaratuko ditu ISBN zenbakia emanik, paperean edo formatu digitalean (<http://www.ehu.eus/eu/web/argitalpen-zerbitzua/zelan-argitaratu>).

Bi modalitate hauek ditu deialdiak:

- **A modalitatea:** ikasmaterial edo eskuliburu berriak sortzea da modalitate honen helburua.
- **B modalitatea:** lehendik sortuak diren ikasmaterialak edo eskuliburuak zuzentzea da modalitate honen helburua.

2. Definizioak

Ikasmateriala: Oro har ikasleek ikaste-prozesurako erabilgarria den materiala.

Eskuliburuak: Ikasleei zuzendutako liburuak dira, oinarritzko ikasmaterialtzat jotzen dena kasuan kasuko irakasgairako. Gaiarekin lotura daukan saileko kontseiluaren egiaztagirian jasota ageri beharko du lana interesgarria dela ikuspegi akademikotik eta edukia bat datorrela irakasgaiko programarekin.

3. Proiektuen onespena

Proiektuak aurkezten direnetik bi hilabeteko epean plazaratuko du Argitalpen Zerbitzuak deialdiaren ebazpena.

UPV/EHUko Euskararen II. Plan Gidarian (2013-2017) esaten da Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak ahalegin berezia egingo duela deialdi honetan, bai giza baliabideen aldetik, bai diru-baliabideen aldetik.

Han esandakoari jarraituz, ez da eskaerarik baztertuko aurrekontu faltagatik, baldin eta gutxieneko maila badu.

4. Argitaratzeko baldintzak

Ikasleei zuzendutako liburuak argitaratuko dira, funtsean eskuliburuak, betiere Argitalpen Zerbitzuko Estilo Liburuan jasotakoan oinarrituz (http://www.ehu.eus/documents/4638236/0/estilo_eusk.pdf):

- UPV/EHUko ikasketa planetako batean helburu duten irakasgaiaren uneko programarekin bat etorri behar dute.
- Saileko kontseiluak egindako ziurtagiria (II eranskina) izan behar dute. Han, lanak interes didaktikoa duela eta edukia irakasgaien programara egokitzen dela adieraziko da.

5. Hizkuntza-egokitasuna

Egileek testuaren gutxieneko hizkuntza-kalitatea bermatu beharko dute. Komeni da, besteak beste, Xuxen zuzentzaile automatikoa (<http://www.xuxen.eus/>) instalatzea eta erabiltzea. Halaber, kontuan izatekoak dira UPV/EHUko EHULKU zerbitzuaren aholkuak eta baliabide-zerrenda (<http://www.ehu.eus/ehulku/>), bai eta EIMAREN estilo-liburuak ezarritako irizpideak ere. Aurkeztutako lan osoaren kalitateak eskariko laginaren pareko izan behar du hizkuntza-zuzentasunaren eta -egokitasunaren aldetik. Testuen azken hizkuntza-orrasketaz UPV/EHUko Euskara Zerbitzua arduratuko da. Azkenik, Euskara Zerbitzuak onespenez-egiria emango dio materialari, hizkuntzaren aldetik testua egokia eta zuzena dela adieraziko duena.

6. Materialak bidaltzeko epea

A modalitateko lanetan (egitekoak diren lan berrietan), parte-hartzaileek, justifikatutako arrazoirik ezean, **2019ko urriaren 31rako** bidalia izan beharko dute material osoa.

B modalitateko lanak (lehendik eginak diren lanak), berriz, justifikatutako arrazoirik ezean, emanaldi bakarrean aurkeztu beharko dira **2019ko urtarrilaren 31rako**.

Editatzeko moduko formatuetan aurkeztuko dira lanak, ahal dela Microsoft Office-ko edo OpenOffice-ko programak erabiliz.

7. Egileen konpromisoa

Eskaria onartua izanez gero, egileek konpromiso hauek hartzen dituzte:

- a) Materiala deialdian adierazitako epean bidaltzea helbide honetara:
argitaletxea.deialdiak@ehu.eus.
- b) Euskaltzaindiaren eta Euskara Zerbitzuaren hizkuntza-irizpideak betetzea eta zuzenketak testuan sartzea.
- c) Horrela badagokio, materiala, amaitutakoan, Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren webguneko UPV/EHUko ikasmaterialen sare-argitalpenak atalean plazaratzea (<https://ikasmaterialak.ehu.eus/>).
- d) Ikasliburua argitaratzeko egileak bere Saileko Kontseiluaren onespentxostena aurkeztu beharko du, «lanak interes didaktikoa duela eta edukia irakasgaien programara egokitzen dela» adieraziko duena (txostenaren formularioa deialdi honen II. eranskinean dago).
- e) Testugileak, orobat, idazki bat igorri beharko du material sortu berriaren jabe intelektuala dela ziurtatuz.


8. Egitasmoen aurkezpena

Interesatuak deialdi honekin batera argitaratzen den I eranskina bete eta argitaletxea.deialdiak@ehu.eus helbidean aurkeztu behar dute 2018ko azaroaren 14rako. Irakasleek deialdiari buruzko argibideak jasotzeko goiko helbidera jo behar dute.

Ohartu bitez eskatzaileak lanaren laburpen bat (A modalitatean) edo lagin bat (B modalitatean) aurkeztu beharko dutela, ohiko formularioarekin batera, gutxienik hiru orrialdekoa (4.200 karaktere inguru). Aurkibideak ez dira onartuko lagin gisa. Lanaren hizkuntza-kalitatea balioesteko erabiliko da testu hori.

Ikasliburua argitaratuko den ala ez erabakitzeko orduan, titulua, aurkibidea eta dagokion irakasgaiaren programarekin duen lotura ere aztertuko dira.

Leioan, 2018ko urriaren 29an



Jon Zarate Sesma

UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordea

